

Deskarbonizazio Industriala 2025 programan eskabidea egiteko erabiltzailearen gida

Zein da programaren helburua?

Industria-enpresen eta industriako proiektu-prozesuari lotutako zerbitzuen inbertsioak babestea (aktibo finkoak), betiere berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak murrizten badituzte ingurunearen babeserako maila hobetzeko, EBn ezarritako arauetatik haratago.

Zer jarduera-mota lagunduko da diruz?

Diruz lagundu daitezkeen jarduketa-ildo desberdinak daude, hala nola:

- a) Dagoeneko existitzen den ekoizpen-prozesuarekin zuzenean lotutako makinetan egiten diren inbertsioak.
- b) Dagoeneko existitzen den ekoizpen-prozesuko osagai gehigarrietan egiten diren inbertsioak.
- c) Dagoeneko existitzen den ekoizpen-instalazioetan egiten diren inbertsioak.
- d) Oraindik existitzen ez diren establezimendu edo ekoizpen-lerroetan egiten diren inbertsioak.
- e) Instalazio elektriko berrietan egiten diren inbertsioak eta zaharrak egokitzea, diruz lagundu daitekeen jarduketaren ondorioz gehieneko potentzia onargarria handitzeagatik, hala nola koadroak, transformadoreak, harguneak, lur-harguneak, korrante-harguneak, etengailuak, gaintentsioen, zirkuitulaburren eta tenperatura-aldaketen aurkako babesak, etab.

Nondik dator inbertsioetako isurien murrizketa?

Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioen murrizketaren arrazoiak honako hauek dira:

- Erregai fosilak erregai berriztagarriekin ordeztzea.
- Erregai berriztagarrien eta/edo elektrizitatearen erabilera murriztea.
- Baliabide naturalen erabilera murriztea edo optimizatzea:
 - o Lehengai jasangarriak eta/edo bigarren mailako lehengaiak (birziklatuak edo beste prozesu bateko azpiproduktuak) erabiltzea.
 - o Industria-hondakinak kudeatzea eta/edo balioztatzea.
 - o Gas fluordunak ordeztzea.

Ez dira diruz lagunduko CO₂-a harrapatzeko, erabiltzeko edo bahitzeko dirulaguntzak.

Erregai fosilak erabiltzen dituzten ekoizpen-prozesuetako ekipoen, makinaren eta instalazioen dirulaguntzen kasuan, aurreko b) puntuko dirulaguntzak soilik lagunduko dira diruz; hau da, “ekoizpen-prozesuko **osagai gehigarrietan** egiten diren inbertsioak”, betiere dagoeneko existitzen diren ekoizpen-ekipoen, makinaren eta instalazioen ingurumen-babesa hobetzen badute. Halaber, inbertsio berriak ezin izango du ekoizpen-gaitasuna areagotu edo erregai fosil gehiago kontsumitu.

Edonola ere, programaren esparruan ezingo da diruz lagundu erregai fosiletan oinarritutako aktibo bat (osagarri gehigarriak izan ezik) izaera bereko beste batekin ordezte, ordezkapen horrek energia-kontsumoa murrizten badu ere.

Hautatu daitezkeen proiektuak, besteak beste:

- BEG isuriak murriztea dakarten baliabide naturalak murrizteagatik beharrezkoak diren inbertsioak, bigarren mailako lehengaiak edo hondakinen azpiproduktuak erabilita, erregai eta lehengai fosilak ordezteko hondakinak balioztatzea, edo berotegi-efektuko potentzial handiko gas fluordunen ordezkari berotegi-efektu txikia edo nulua duten beste gas batzuk erabiltzea.
- Hondar-beroa berreskuratzeko sistemetan egindako inbertsioak, erregai fosilen kontsumoa ordezte edo murriztea ahalbidetzen duten inbertsioak, besteak beste: jatorri berriztagarriko hidrogenoa edo biomasatik datozen erregaiak erabiltzea; prozesu termikoak elektrifikatzea (bero-ponpak eta bestelakoak), betiere ekoizpen-prozesura lotuta badaude; energia-kontsumoa kontrolatzeko eta aurrezteko sistema digitalak.

Zer dokumentazio tekniko aurkeztu behar dut?

Enpresa eskatzaileek inbertsioen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa justifikatzeko memoria xehatu eta Excel inprimaki bana aurkeztu beharko dituzte.

Memoria teknikoa:

Eskatzaileak bete beharreko plantilla bat helaraziko da, eta honako informazio hau gehitu beharko da:

- Inbertsioari atxikitako produktuari eta ekoizpen-prozesuari buruzko informazioa.
- Inbertsioa egin aurretiko ekoizpen-prozesuaren deskribapena.
- Inbertsioa egin osteko ekoizpen-prozesuaren deskribapena; bertan adierazi beharko dira prozesuan sartutako elementu berriak, ezaugarri esanguratsuen deskribapena eta energia-iturri desberdinetako aldaketak, halakorik balego. (Berariaz adierazi beharko da ordezkapena edo gehitutako ekipo/osagarri gehigarri bat den).

- CO₂eq isurien murrizketa kalkulatzeko kontsumo-balioen justifikazioa. Kalkulua egiteko erabili diren kontsumoen eta balizko egoeren xehetasunak. Eskaeran orokorrean justifikatu beharko da, bai eta modu indibidualean aurkeztutako inbertsio bakoitzean ere. Halaber, kontsumoen kalkulua egiteko modua azaldu beharko da, inbertsioaren aurreko eta ondorengo ekoizpen-mailekin alderatu ostean.
- Plan ekonomiko-finantzarioaren eta hura betetzeko epeak, aurkeztutako inbertsioen guztizko aurrekontu banakatuarekin.
- Inbertsioa justifikatzeko aurretiazko txostenak, halakorik izatekotan, hala nola auditoretza energetikoak, deskarbonizazio-planak, produktuaren, prozesuaren edo erakundearen ingurumen-aztarnaren kalkulua...
- d) jarduketa-tipologiaren kasuan (oraindik existitzen ez diren establezimendu edo ekoizpen-lerroetan egiten diren inbertsioak), eskatzaileak aurkeztutako inbertsio bakoitzeko baliatzen duen erreferentzia-aktiboa zehaztu, azaldu eta justifikatu beharko du.

Kalkulu-orria:

Eskatzaileak bete beharreko Excel kalkulu-orri bat helaraziko da enpresek ekidin diren isuriak kalkulatzeko; horretarako, dirulaguntzaren xede diren inbertsioen aurretiazko eta ondorengo CO₂eq isuriak alderatu behar dira.

Kalkulu-orri horrek kalkuluan erabilitako isurtze-faktoreak estandarizaten ditu, eta, horri esker, ebaluazio-fasean dauden eskaera desberdinak alderatu daitezke, irizpide bateratuak baliatuta.

Kalkulu-orri horretan, eskatzaile bakoitzak inbertsioan erabilitako erregaiak eta energia-iturriak, lehengaiak, hozgarriak edo hondakinak zehaztuko ditu, eta inbertsioaren aurreko eta ondorengo kontsumoak gehitu beharko ditu. Kontsumo horiek inbertsioaren aurreko eta ondorengo ekoizpen-maila berdinetarako kalkulatu eta Excelean sartu beharko dira. Halaber, eskatzaile bakoitzak dirulaguntzaren xede den inbertsioaren guztizko kostua sartu beharko du.

Kalkulu-orriak eskatzaile bakoitzak sartutako kontsumoen datuak eta aurretik zehaztutako isurketa-faktoreak kontuan hartzen ditu saihestu diren emisioak kalkulatzeko, eta inbertsio hautagarriaren eta saihestu diren emisioen arteko harremana kalkulatzeko.

Nolako da kalkulu-orria?

Excelak 4 erlaitz ditu:

- “Jarraibideak” erlaitza: kalkulu-orria zuzen betetzeko egin beharreko urratsak zehazten dira. Ez da gelaxkarik bete behar.
- “Proiektuaren datuak” erlaitza: erlaitz horretan soilik bete behar da informazioa. Honako hauei buruzko informazioa eskatzen da: erregaiak, lehengaiak, inbertsioaren aurretik eta ondoren erabilitako hondakinak eta hozgarriak, dagokion kontsumoa eta inbertsioen kostu totala.
- “Isurtze faktoreak” eta “isurtze faktoreak 2” erlaitzak: kasu bakoitzerako kalkulatu eta erreferentziatutako isurpen-faktoreak jasotzen dira (erregaiak, lehengaiak, hondakinen eta hozgarrien kudeaketa). Erlaitz horietan ez da daturik bete behar.

Nola betetzen da “Proiektuaren datuak” erlaitza?

Inbertsioei lotutako datuak soilik atzealde urdina eta horia duten gelaxketan sartu behar dira.

Atzealde urdina duten gelaxkak (C zutabea “hautatu”): lehenik eta behin, lehenengo taulan erabilitako eta/edo erabiliko den erregaia hautatu beharko da, eta horretarako zabalgarrian agertuko diren balioetako bat hautatu. Behin balioa sakatuta, “unitatea” eta “isuri-faktorea” zutabeei dagozkien gelaxkak automatikoki beteko dira.

Prozesu bera jarraitu behar da lehengai, hondakin edo hozgarri eta bestelako gas fluordunen kudeaketari lotutako inbertsioetarako tauletako bakoitza berdin betetzeko.

Deialdiaren kalkulua egiteko Excel orrian jasota ez dauden lehengaiak, hondakin edo hozgarri eta bestelako gas fluordunak kontuan hartu behar badira, baloratuko da kalkulua egiteko erabili den isuri-faktorea indarrean dagoen legezko iturri batetik edo aintzatetsitako iturri bibliografiko batetik ateratzea. Halaber, kasu bakoitzean dagokion gelaxka eskuz bete beharko da:

- Erregai berriak erabiltzeko, 20. lerroa (5 zerrendan ez dauden erregaiak) bete beharko da.
- Bestelako lehengaiak erabiltzeko, 35. lerroa (4 zerrendan ez dauden lehengaiak) bete beharko da.
- Bestelako hondakinak erabiltzeko, 49. lerroa (4 zerrendan ez dagoen hondakinen kudeaketa) bete beharko da.
- Beste hozgarri batzuk erabiltzeko, 59. lerroa (zerrendan ez dauden hozgarriak eta bestelako gas fluordun batzuk) bete beharko da.

Lerro horietako edozein betetzekotan, unitatea zehaztu beharko da D zutabearen (unitatea), isurtze-faktorea $\text{kgCO}_2\text{eq/unitatea}$ neurria erabilita E zutabearen (isurtze-faktorea) eta balio hori zehazten den legezko iturriaren edo iturri bibliografikoaren erreferentzia.

Atzealde horia duten gelaxkak: prozesuaren balioa gehitu behar da:

- C3 gelaxka **“instalazio berriaren bizitza baliagarria (urteak)”**: bizitza baliagarria 10 urtetik beherakoa bada, bizitza baliagarria adierazi beharko da. Bizitza baliagarria 10 urtekoa edo gehiagokoa bada, 10 urtekoa dela adierazi beharko duzu.
- F zutabea **“inbertsioaren aurreko egoera”**: D zutabeko (**“unitatea”**) zutabeko neurri-unitatea erabilita, inbertsioa egin aurretik dagokion prozesuaren **urteko kontsumoa** adierazi beharko da.
- G zutabea **“inbertsioaren ondorengo egoera”**: D zutabeko (**“unitatea”**) zutabeko neurri-unitatea erabilita, inbertsioa egin ondoren prozesurako aurreikusitako **urteko kontsumoa** adierazi beharko da.
- C70 gelaxka **“aurkeztutako inbertsioa”**: dirulaguntzaren xede den guztizko inbertsioaren balioa zehaztu beharko da.

Balio guztiak sartu ondoren, kalkulu-orriak kalkulatu du saihestu diren isurien eta kostuen efizientziaren balioa.

Oraindik existitzen ez diren establezimendu edo ekoizpen-lerroetan egiten diren inbertsioen kasuan (d) motako jarduketa-tipologia), eskaeran hura osatuko duen jarduketa bakoitzerako amaieran aurreikusitako egoeraren CO_2eq isurien zehaztapenarekin batera aurkeztu beharko da, eta, aldi berean, erreferentziazko oinarritzko proiektu bat aurkeztu beharko da, bi egoeren arteko alderaketa egin eta proiektuaren deskarbonizazio potentziala zehaztu ahal izateko. Hau da, inbertsioa egin aurretik datuak erreferentzia-aktiboenak izango dira. Hortaz, erreferentzia-aktibo gisa hartuko da aktibo baliokide baten kostua; hots, ekoizpen-maila berarekin, hobekuntza teknologikorik, ingurumen-hobekuntzarik eta energia-aurrezpenik gabe, laguntzarik gabe modu sinesgarrian egin ahal izango dena.

(*) Oharra: saihestu diren isuriak kalkulatzeko, alderatu egin behar dira erregai, lehengai, hondakin, hozgarri eta bestelako gas fluordunen kategoria guztietako kontsumoak, inbertsioa egin aurretik eta ondoren. Ekoizpen-prozesuan kontsumoak egonkor mantentzen badira inbertsioa egin aurretik eta ondoren, ez dira kontsumoak eta lotutako inbertsioa egotzi behar kalkulu-orrian.

Halaber, aktiboak jatorri jasangarriko energiaren bidez elikatzen diren kasuetan, eta hala justifikatu bada erosketa berdeko ziurtagiriaren bidez, inbertsioaren aurreko eta ondorengo kontsumoak F26 eta G26 zutabeetan gehituko dira, eta “elektrizitate berriztagarriari” dagokion isurien faktorea aplikatuko da.

Edonola ere, kontsumoak Excel orrian zein memorian gehitu beharko dira, erregai mota, lehengaiak, eta hondakinak eta gas fluordunak hautatu ondoren agertzen diren unitateen arabera, "Proiektuaren datuak" erlaitzeko zabalgarrian; izan ere, isurtze-faktoreak unitate horiei lotuta daude.

Zein dira ebaluazio-irizpideak?

Aurkeztutako proiektuak hautatzeko eta ebaluatzeko, espediente bakoitzean lortutako balioen haztapenaren arabera izango da, honakoa kontuan hartuta:

- a) Berotegi-efektuko gas (BEG) isurien murrizketaren balio garbia (tonCO₂eq/unitate)
 - b) Berotegi-efektuko gas (BEG) isurien murrizketa ehunekoetan, egungo instalazioarekin alderatuta
 - c) Inbertsio hautagarriaren kostuen efizientzia
 - d) Eskatzaileek helarazitako memoria tekniko xehatuaren nota
- a), b) eta c) atalak kalkulatzeko laguntzaren eskaera-inprimakiarekin batera entregatu beharreko Excel orriko datuak baliatuko dira.